

Nere Dantza



Dantzaren bidez geure burua adierazteko geure modua bilatuko dugu, eta behaketa eta entzutea landuko ditugu guregana eta gainerako ikaskideengana.

Helburuak

- Inés Auberten obrara hurbiltzea.
- Emozioak arakatzea, haiekin konektatzea eta dantzaren bidez adieraztea.
- Adierazpenaren, keinuaren, begiradaren sotiltasuna aztertuko dugu, gure buruari eta ingurukoei entzunez.
- Dantzaz gozatzea.

Aipamenak

Inés Auberti elkarrizketa "Esferas" lanaren inguruan <https://www.youtube.com/watch?v=5p8ioJa5GSk>

Hitzekoa ez den komunikazioaren oinarrizko 7 emozioen azterketa <https://www.analisisnoverbal.com/las-7-emociones-basicas-en-la-comunicacion-no-verbal/>

Contact Improvisazioa <https://www.desertsummerfest.com/que-es-la-danza-contact-improvisacion/>

Contact dantza hurrekin <https://www.youtube.com/watch?v=25q7dxEDBRQ>

"Lic. Alvarado y su escribiente" lana <http://www.rescoldos.net/sub-paginas/producciones/videos/licenciado/licenciado.html>

Segni mossi proiektua (mugimenduan marraztu) <https://www.segnimossi.net/>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Inés Auberten "Esferas" lana ikusten dugu.

<https://www.youtube.com/watch?v=5p8ioJa5GSk>

2. Obran agertzen diren pertsonen transmititzen dizkiguten emozioak definitzen ditugu.

Zer emozio, hitz, irudi edo ideia iradokitzen dizu dantzari (edo dantzari-bikote) bakoitzak? Zer transmititzen dizute?

Zer emozio, hitz, irudi edo ideia iradokitzen dizu dantzari (edo dantzari-bikote) bakoitzak? Zer transmititzen dizute?

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Oinarrizko 4-5 emozio zerrendatzen ditugu (adibidez, poza, tristura, amorrua, sorpresa, beldurra). 4-5 talde sortu eta talde bakoitzak emozio bat aukeratuko du lan egiteko.

2. Lehenik eta behin, talde bakoitzak emozio hori transmititzen edo iradokitzen duen abesti bat aukeratu du.

Garrantzitsua da irakasleak jarduera honen helburua gure gorputzaren adierazkortasuna jolasaren bitartez esperimendatzea dela azpimarratzea. Elkarrekiko errespetuak oinarrizkoa izan behar du. Kontua ez da ezer erakustea, helburua probatzea, jolastea, askatzea eta esperimendatzea da, barruko eta kanpoko iritzirik gabe adierazteko. Gelditasuna ere dantza da, eta isiltasuna musika den bezala.

3. Hori egin ondoren, talde bakoitzari ariketa hau egiteko proposatzen zaio: zirkuluan jarrita, aukeratu duten abestia entzuten den bitartean, banan-banan, pertsona bakoitzak emozio hori transmititzen duen keinu edo mugimendu zabala egiten du. Besteek kopia egiten dute, behatzeko, entzuteko eta, hartara, gainerako pertsonen mugimenduak gure errepertorioan txertatzeko.

4. Ariketa bera egiten dugu, baina mugimendu oso sotil eta txikiekin. Batez ere aurpegiaren adierazkortasuna erabiliz (ahoa, begirada...).

Ariketa horiek egin ondoren, talde bakoitzak dantza bat inprobisatzen du. Dantza horretan kontuan hartuko dira aurreko ariketetan landutako mugimendu eta keinuak (gureak eta besteenak).

5. Erakutsi gainerako taldeei emaitza. Talde bakoitzak dantza egiten duen bitartean, gainerako taldeetako parte-hartzaileek bideoan grabatu eta inprobisatutako piezaren argazkiak egiten dituzte, talde bakoitzak bere dantza beste ikuspegi batetik ikus dezan.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Hausnartu zer emozio kostatu zaigun gehien adieraztea, zein gutxiago, non sentitu garen erosoago edo deserosoago. Gure dantzaren emaitza bideoan eta argazkian ikusi ondoren, gorputzak zuzenean duen emozio bera sortzen duen ausnartzen dugu.

2. Beste emozio batzuk aztertzen jarraitzen dugu.

3. Ikerketa-lan hau espazio mugatu batean egiten dugu. Horretarako, 1,5 m-ko diametroa duen zirkulu bat marraztuko dugu lurrian eta parte hartzaileei dantza egitea proposatzen diegu, espazio horretatik atera gabe.